

BERRIGARA

7. zenbakia

JARDUN Elkarte, Bergara

1994, azaroak 4



Iñigo Igartua

Ziklo krosean tinko

Autoberezi



FIAT

Alfa Romeo




ANTIGUA AUZOA, ANTZUOLA (GIPUZKOA)


☎ 76 62 10 / 76 62 75

GIARTZU

Estetika Zentrua



TINKOTZEKO-MURRIZTEKO TRATAMENDUA



TINKOTZEKO-MURRIZTEKO TRATAMENDUA



GAZTETZEKO TRATAMENDUA

GIARTZUK
*onena eskaintzen
dizu beti!!*



AKNE KONTRAKO TRATAMENDUA



MASKARA HIDRATATZAILEA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tfnoa eta Faxes: 76 03 97

Argitaratzailea:
JARDUN Elkartea.
Masterreka, 18 Bergara.
Tfnoa eta Faxes: 76 08 19

Zuzendaria:
Gorka Elorza
Erredakzioa:
Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezar

Maketazioa:
Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil

Publizitatea:
Alex Azkarate

Harpidetzak:
Gorka Elorza

Festuen zuzenketak:

Estepan Plazaola
Mariji Laskurain
Nerea Alzelai
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Miguel Angel Elkoroberezar
Estepan Plazaola
Alex Labaien
Naki Eraña
Juan Martin Elexpuru

Comikiak:

Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Jose Martin Ezenarro
Julian Ezenarro

Banaketa:

Cxantxangorri taldea

Tirada:

3.700 ale.

Primategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

SSN:

130-6599


BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du


Z E R B E R I D A ?

ARANTZAZU OREGI

Udaleko artxiboaren arduraduna

- Zer nolako datuak berreskuratu dira Zerrajerako artxibategian?

- 1920 eta 1970 urte bitarteko lantegi batetako datuak lirateke: zenbat langile ziren, kontabilitate asuntoak, planoak... etab, guztira 250 metro lineal informazio. Bergaren industrializazio garaia eta ekonomi iharduera ezagutzeko oso aproposa, kontutan izanik gainera Zerrajerak Gipuzkoan izan duen garrantzia. Beste fondo batzuekin gertatzen den bezala, interesa dutenek kontsultak egiteko aukera izango dute. Azpimarratu behar da Zerrajeraren sentsibiltatea agiriak gorde eta inbentariatzeko.



- Herriko Ondarea ez dadila galdu...

- Hori da. Desagertu baino lehen hobe da gurekin kontaktuan jartzea: lantegi txikiak, familiako artxiboak, baserriak edota arlo pribatuko beste ondareak jasotzeko prest gaude, oso interesgarriak baitira gure historia eza-gutu ahal izateko.

"Zerrajerak sentsibiltate handia izan du agiriak gordetzerako orduan"

I T U R R I O N E T I K

Bergararrak Ruandaren aldeko Txakur Leren Euskadiko Itzulian

Ruandaren aldeko Txakur Leren Euskadiko Itzulia antolatu dute Asen Garitano bergararrak eta beste lau lagunek. 30 egunetan Euskadiko 50 herri bisitatzeko asmoa daukate, guztira 1.000 kilometro inguru beteko dituztela. Irteera (abendua 11n) eta helmuga Bergaran izango da eta partaideek 3 lera, busky arrazako 25 txakur, furgoneta bat eta txakurrendako janaria eramango dute. Partaideak, berriz, herri ezberdinetan jasoko duten tratua menpe daude, ez baitute ez janari ez dirurik eramango. Pegatzen salmentaren bitartez, herri bakoitzeko eliza dirua jasotzeaz arduratuko da.

E S A N
D U T E

"Jubilatuentzat antolatutako zentro ugarietan jendeak lan egiten du prestakuntza berezirik izan gabe. Psikologoak, medikuak edo pedagogoak izan ohi dira, orain arte ez delako izan mundu hori lantzen duen ikasketarik. Oso interesgarria ikusten dugu ikastaro bereziak antolatzea jende hori prestatzeko edo birziklaketa moduan laguntzeko. Ikerketak egiteko asmoa dugu, orain arte oso gutxi egin baitira gerontologia psikosozial arloan".

FERNANDO ETXEBERRIA
UNEDek antolatu duen Gerontologia Psikosozial masterreko zuzendaria
ARGIA

"Baserritarra saiatu da gizarteak eskatzen diona ematen, baina bere lana errekonozitu dezagun, ez bakarrik egun haundietan, baizik eta egunero, hortxe, herri guztietan ondoan ditugun azoka horietara joan eta erosiz".

MAITE ARISTEGI
EHNEko partaidea
EGIN



THE GETAWAY (LA HUIDA)

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30 eta 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



BEETHOVEN 2

Larunbata: 17.00 eta 19.30.

Igandea: 11.30.



PRINCIPIO Y FIN

Osteguna 20.00.

Zinea

▼▼ **Sam Peckinpah** filmearen bertsio berri bat egiten ausartu dira **Alec Baldwin** eta **Kim Basinger**. Senar emazteak pantailan eta bizitzan, filme honetan ihes egitera behartuta aurkituko dira banku batean atrako bat egin ondoren. Horrez gain, beraiekin iheska ari den **Rudy (Michael Madsen)** ez da bere zatiarekin konformatuko. **Roger Donaldson** zuzendari.

▼▼ Munduko San Bernardo txakurrik famatuena berriz ere trastadak egiteko prest azaltzen da. Bigarren honetan **Beethoven Missy** eta beren 4 txakurkumez lagunduta dator eta Newton familiaren etxea hankaz gora jartzeko ahaleginduko dira. **George Newtonen** pazientzia amaitu arte behintzat...

▼▼ **Arturo Ripstein** mexikarrak Urrezko Kontxa irabazi zuen iazko Donostiako Zine Jaialdian filme honi esker. Egipton atentatu bat jasan berri duen **Naguib Mahfouz** Nobel Sariaren nobelan oinarrituta, eragozpenen aurrean erantzun indibiduala eta kolektiboaren inguruko erreflesio bat planteatzen digu.

Deiak

▼ **1944**an jaiotako bergararrek beren 50. urteurrena ospatuko dute azaroaren 26an. 7etan Santa Marinarin meza eta 9etan afaria Lasan. Izen-ematea: 764242 (Jesus Ape-rribai), 762833 (Elisa Ugarte), 764208 (Arantza Alberdi), 765064 (Itxasmendi taberna) edota 762370 (Sánchez ileapaindegia).


▼ **1957**an jaiotakoen afaria azaroaren 19an 9etan Sirimiri jate-txean. Izen-ematea Intxorta tabernan azaroaren 17a baino lehen.

▼ **Xabier De Zerio**ren eskultura erakusketa Beasaingo Kultur Etxean.

▼ **Santi Arrietaren** eskultura eta keramika ikastaroa Gasteizeko Lankide Aurrezkiaren (Dato, 14) erakustokian.

Ogia

▼ **Igandea 6:** Mizpildi.



GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 4:** Estella.
- ▼ **Larunbata 5:** Estella.
- ▼ **Igandea 6:** Mozos.
- ▼ **Astelehena 7:** Camacho.
- ▼ **Asteartea 8:** Puy.
- ▼ **Asteazkena 9:** Guallar.
- ▼ **Osteguna 10:** Estella.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

GOROSARRI ABESBATZA

Udazken Kulturala

Eskoriatzako abesbatzak Udazken Kulturalako bigarren kontzertua eskainiko du larunbatean

Udazken Kulturalarekin jarraituz, Eskoriatzako Gorosarri abesbatzak kontzertua eskeiniko du bihar larunbata arratsaldeko 8.15etan Santa Marina elizan. Gorosarri abesbatza 1983. urtean sortu zen eta bere izena Eduardo Gorosarri Eskoriatzako seme-kuttuna eta konpositore famatuari zor dio.

Bere sorreratik, Gorosarri hainbat sari lortu ditu jaialdi ezberdinetan. 1984an esaterako, 3.a izan zen Ejea de los Caballerosko Abesbatzen lehiaketan, 85ean Tolosako Nazioarteko jaialdian 5. postua lortu zuen Polifonia eta folklore modalitatean, 87an irabazi egin zuen Ejea de los Caballerosen, Madrilen, 89an, Gabon kanten lehiaketan 3. saria eskuratu zuen, 91n Arrasate Musikaleko Orkestra Sinfonikoarekin gira bat burutu zuen Eus-



Joan zen astean danimarkarrak izan baziren, zapatu honetan Eskoriatatik datorkigu Gorosarri abesbatza

kal Herrian (gira horren grabazio bat kaleratu zen), eta, horrez gain Alemanian, Italian, Kataluan, Asturias edota Iparraldean ere eman dituzte eskoriatzarrek.

Bihar, Oscar Berezi-bar Uriarte zuzendaritzapean, honako lanak eskeiniko ditu: Todo cuanto pudo dar (F. Guerrero), Locuste iste (A. Bruckner), Niño Dios d'amor herido (F. Gu-

errero), ¿De dónde venis amores? (J. Vasquez), Más vale trocar (J. Del Encina), Maddona mia cara (Anónimo), Mignone (G. Costeley) (lehen zatian); Alegeratzen (L. Elizalde), Ama (Lesbordes), Goizian argi hastian (A. Lesbordes), Illunabarra (Mocoroa), Bili bili bonbolo (A. Donostia) eta Txanton piperri (B. Zapirain) (bigarren zatian).

Gorotau, larunbatean 20.15etan Santa Marinaran. Sarrera doan izango da.

Guerrero, Zapirain, Costeley, Vasquez, Elizalde edota Mocoroaren lanak eskainiko ditu, Egea de los Caballerosko Abesbatza Lehiaketa 1987. urtean irabazi zuen koral eskoriatzarrak.

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariunma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

Eskerrik asko guztiei

Joan zen urriaren 12an Julian Bernalen alde Reala eta Eibarren artean Agorrosinen jokatu zen futbol partidua dela eta, Julian Bernalen famili eta lagunek eskerrak eman nahi dizkiete, Real Sociedad S.D. eta S.D. Eibar elkartei, Bergarako merkatal etxe eta erakundeei eta herritar guztiei antolatutako ospakizunean parte hartzeagatik eta emandako dirulaguntzagatik.

Halaber, partidua antolatuzutene jakinerazi nahi dizue bildu zen dirua 1.363.100 pztakoa izan zela.

**JULIAN BERNALEN FAMILI
ETA LAGUNEK**

Euroathletic

Lehenengo eta behin, zorionak Athleticceko jokalariei eta jarratzailei, egia esan merezia zuten aurrera egitea.

Partidua, futbolzaleentzat, oso polita izan zen, benetako kanporaketa partidu bat, beltzez jantzita zegoenak azkenengo txistua jo arte, denok eduki genuen zerbait (korapilo edo trabaren bat) eztarrian. Benetan eskertzekoa jokalarien portaera eta profesionaltasuna, hasieratik aurrera jo bait zuten beharrezkoa zen golaren bila, aurrera egiteko batzuentzat edo kanporaketa zihurtatzeko, besteentzat.


Baina, Domu Santu honetan ez zen dena hain polita izan batzuk horrela "pintatu" nahi izan arren, futbol zelaiko sarreretan zeuden beltzak (ez, ez ziren arbitroak edo linierrak) piska bat lekuz kanpo zeudela uste dut, batek baino gehiagok disgusto txikiren bat eduki bait zuten. Eta gero barruan geundela, falta zena, ertzainen banda eta gainontzeko guztia. Neu behintzat futbol partidu bat ikustera joan nintzan eta ez musika eta pertsonai errezial bat entzun eta ikustera. Benetan sobran zegoela uste dut.

Besterik gabe, zorionak jarratzaile guztiei, benetan azpimarragarria edu-


ki zuten jokaera, bai supporter "bildu garriek" baita ere txurigorrirei eta eg bateko txurigorrirei ere, eta finalera sarrerak eskatzen hasi.

ANDER J. O.

Tiira biraka



JOSE MARTIN EZENARRI



◆ **Euskara ikastaroa Elgetan**

Elgetako Udalak euskara ikastaroa (hasiera maila) antolatuko du. Interesatuak Udaletxeko bulegotara jo beharko dute eta izena ematen dutenekin bilera bat egingo da jarraian denon artean egutegia osatzeko. Beraz, izen ematea lehen bait lehen egitea eskatzen da.

◆ **Udazken Kulturala**

Udazken Kulturalaren programazioaren barne, datorren ostiralean Joseba Goñi Galarraga Doktorea eta Deustuko Unibertsitatean Historia Garaikideko irakasleak "Resistencia de la Gipuzkoa interior en la Guerra de la Convención" izenburuko hitzaldia emango du 7etan Kultur Etxeko erakusketa aretoan. Sarrera doan izango da.

JAIOTAKOAK

- Mikel Arkauz Gallastegi**
Urriak 22
- Andoni Rodríguez Martín**
Urriak 29
- Alazne Murgizu Agirrezabal**
Urriak 30

HILDAKOAK

- Francisco J. Arriaran Lazpiur**
Urriak 29, 80 urte

Etxez-etxeko asistentzia zerbitzua enpresa pribatu bati adjudikatuko dio Udalak

Aurreko ostiraleko Ez-ohizko Plenoan EAJ, PSE-EE eta EAren aldeko botoekin eta HBren abstentzioarekin, etxez etxeko asistentzia zerbitzua adjudikatzeko baldintza plegua onartu zen. 1995 urtetik aurrera, 70 bat pertsona (gaisotasun edo adinagatik batez ere) atenditzen dituzten 14 langileren lan egoera aldatuko da. Aipatutako langileak Udalaren menpe egon dira orainarte eta, Alvaro Esparza Gizarzte Ongizateko Batzordeburuak azaldu zuenez, zerbitzua adjudikatzen zaion enpresara pasako dira etorkizunean. Orain arte etxez etxeko asistentzia zerbitzuan 16 milioi pezeta inbertitzen zuen Udalak urtero.

Zerbitzuaren pribatizazioa eta 14 langileren lan erregularizazioa 34 milioitan aterako da adjudikaziora. Igoera hau dela eta HB abstenitu egin zen botazioan. Jose Luis Elkorok igoera hori kritikatzear gain, enpresa pribatu baten esku egotean, zerbitzuaren kalitatea zalantzan jarri zuen. Victoriano Gallastegi alkateak, berriz, langileren lan egoera normaliza-

tzeko ordua zela eta araudia betetzeko orduan Udala lehena izan behar dela gogoarazi zion.

Era berean, alderdi guztiek, aho batez, Gortan aisialdirako gune bat egiteko terrenu batzuren erosketa, Ariznoa kalean zoru batzuen zesioa eta 1977 urtean egindako erosketa baten ordainketa egitea onartu zuten.

Alkatearen bandoak

Bestalde, alkateak 3 bando jakitera eman ditu

egunotan. Alkateak Elosuko Agarreko iturriko ura ez edatea gomendatzen du, urak ez baitu beharrezko osasun baldintzak betetzen. Era berean, herriko kale eta parke publikotan patineteak erabiltzea debekatu da eta bizikletei dagokienez, berriz, espaloietan ezin dela gauzez argirik gabe bizikletarekin ibili agindu du alkateak.

Txirindulariei beste edozein ibilgailuren zirkulazio araudia bete behar dutela gogorarazten zaie.



Kalean bizikletan ari direnei, beste edozein ibilgailuren zirkulazio araudia bete behar dutela gogorarazi die bandoan alkateak

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz, 4 EIBAR
☎ 76 63 42 ARRASATE

◆ **Istripua eskalatzen**

Asier Alberdi 26 urteko bergararrak istripu larria izan zuen astelehen arratsaldean Leridako Vilanova de Maia herrian, lagun batzurekin rappela egiten ari zela 25 metro inguruko altura batetik jaustean. Asier Alberdi egoera larrian ingresatu zuten Arnaud Ospitalean baina azken ordutan hobera egin du familiarren hitzetan.

◆ **Hautsekunde sindikalak**

Aurreko astean hauteskunde sindikalak egin ziren Bergarako Udaletxean eta Aranzadi Ikastolan. Udaletxean emandako emaitzen arabera, LABek 4 eta ELAk 2 ordezkari izango dituzte. UGT eta CCOO ez zuten ordezkariarik lortu. Boto eskubidez zuten 118 langileetatik 107k botoa eman zuten. Aranzadi Ikastolan, berriz, LABek 3 eta ELAk 2 ordezkari edukiko dituzte.

◆ **Mus Txapelketa**

EGINeko Mus Txapelketa jokatu da larunbatean 16.30etan Belengua, Oilagorra, Pizinak eta Txuringo tabernetan. Izen-ematea 3.000 pta.

◆ **Artzamendiko garajeak**

Datorren azaroaren 21era arte Udalak Artzamendin salgai jarri dituen garajeak eskuratzeko eskakizunak aurkeztu ahal izango dira Irizar Etxean. Lehendabiziko oferta publikoan ez zen eskakizunik jaso eta, ondorioz, Udalak garaje bakoitzaren prezioa milioi bat pezetara (BEZa barne) jeitsi du.



Seminarioiko Ondarea Rekalde Jauregiko udal artxibategian gordeko da.

Seminarioiko Agiri Ondarea babesteko akordioa

Udalak eta EHAek kolaborazio hitzarmena sinatuko dute

Gaur ostirala sinatzekoak ziren Udala eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen (EHAE) artean Seminarioiko Agiri Ondarearen kontserbazio eta difusiorako bi hitzarmen. Gaur arratsaldeko sinatze ekitaldian Victoriano Gallastegi alkatea eta Jose Maria Aycart EHAEko Gipuzkoako Batzordeko idazkaria izatekoak ziren. Bi aldeak aipatutako Ondarea Udal Artxibategian modu egokienean gordezko akordiora iritsi dira.

Horrez gain, behin Ondarea katalogatuz gero, Ondareari buruzko liburu deskriptibo bat argitaratuko da, bertan Seminarioaren historiaren sarrera, erabilitako koadro explikatiboaren azalpena eta aintzinako eta gaurko asignaturen arteko korrespondentzia taula bat ja-

soz.

Kontserbaziorako hitzarmenari dagokionez, Udalak 750.000 pezeta eta EHAek 500.000 emango dituzte eta Ondarearen kontrol, kontserbazio eta promoziorako batzorde iraunkor bat eratuko da; era berean eta Euskal Herriko historiaren ikerlariak erabilpen egokia egin dezaten zainduko da.

Bestalde, EHAek "Bergarako Erret Mintegiko Ondarearen Inbentarioa" izenburuko liburu argitaratzeko konpromezua hartu du.

Liburuaren egilea Elisabet Bergara izango da, 1000 aleko tirada izango du eta Bergarako Udalak 300.000 pezeta ordainduko ditu, horren truke 400 ale jasoko dituela.



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATGIA,
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

- Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
- Masajeak, solariuma, perikura, estetika...

Josefina

Espaloia, 4 ☎ 76 35 38

Jose Miguel Zaldo

Urteko Enpresa Gizona

Jose Miguel Zaldo Tavex Taldeko presidentea Urteko Enpresa Gizon Onena izendatu zuten Empresa XXI aldizkariak eta Caja Laboral-Euskadiko Kutxak. Bere hitzetan, "enpresa ondo joan dadin lan egiten duten guztiei emandako sarria litzateke".

- Urte hau izan al da Tavex Taldearen urterik onena?

- Ez, 1987.aren atzetik, bigarren urte onena izan dela esango nuke. Urte txarrak ere izan ditugu... baina hobe horiek ahaztea. Dena den, gauzarik aipagarriena zera da: 1846an sortu zenetik, enpresak ez duela izan urte hauetan eman den hazkundera bezalakorik.

- Zein baldintza eman dira?

- Ba lehenbizi hazteko erabakia eta gero, ba, usate dut asmatu egin dugula, askotan hazkundeak enpresaren porrota ekar bait dezake, ez dute ondo asimilatzen eta akabo. Guk gainera toki guztietan izan dugu hazkundera 1989an bilakaera horren aldeko apostu egin genuenetik: Bergaran (89an

produzitutakoaren bikoitza produzitzen da gaur egun), Valentzian (73tik zabalik zegoen planta 89an erosi genuen) eta Marruecosen (91n jarri zen martxan).

- Zein da Bergarako plantaren garrantzia?

- Planta guztiak berdinak dira eta Tavexen garrantzia bere talde guztian dago. Hala ere, 96an 150 urte beteko ditugu Tavex bertan jaio baitzen. Eta hori arrakastaz ospatzeko gero eta konpetitiboagoak izan behar gara, gauzak kalitate haundiagoz, azkarrago eta merkeago eginaz. Zelan? Oihal metro bakoitza ahalik eta merkeen eginaz; 10 metro egiten badituzu, zure kostu guztiak 10 metro artean zatitu behar dituzu. 20 metro egitera heltzen bazara kostea erdira jeisten da. Horretarako injenioa eta imajinazioa behar dira. Zailena da baina egin behar da eta Bergaran urtero kostea jeisten da. Salariorak ez dira jeisten. Baina kalitatea eta produktibitatea ez badituzu hobetzen konponbide bakarra horixe litzateke: salarioak jeitea, alegia.

- Zein posiziotan

dago Tavex konpetentziarekiko?

- Italiarrak, kapital iparamerikarra duten tuneziarak, beljiarrak, alemaniarak eta irlandarrak dira gure konpetidorerik gogorrenak. Tavexek, urteko, 43 milioi metro oihal egiten ditu eta gure hurrengo konpetidoreak, berriz, 30 milioi. Gainontzekoak 15 eta 25 milioi artean daude. Eta 1996an ospatuko dugun 150. urteurrenerako 55 milioi egitera heldu nahi dugu.


- Hazkunde hori emateko zer behar da?

- Oraingo plantetan eta Ekialdean inbertitu nahi dugu eta horretarako Plan Orokorra egingo dugu. Oraindik ez dakigu Ekialdeko zein lekutan zabalduko dugun plantaren bat: Polonia, Hungria, Txekia eta Eslobakiaren artean izango da ziurrenik. Merkatu hori lantzea inportantea da.

- Bakeroak ez du gaurkotasunik galtzen?

- Oraingoz ez baina etorkizunean nork daki. Jendea gustatzen zaio. Egia da gazte jendeak erabiltzen duela batipat baina jende helduagoak ere gero eta gehiago ikusten da gaur egun, jende horrek gaztetan bakeroak erabili zituelako.

"Ekialdeko herrialdeetan inbertitu nahi dugu"



"TAVEXek urteko 43 milioi metro oihal egiten ditu"

HARATEGIA- URDAITEGIA

Sebastian Imaz

Bildotsa, txahala eta oilazkoak

Harane Erreka, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA

Legedia

Alokairuak

- Zer dio Konstituzioak etxebitzetxe buruz?

- Konstituzioaren arabera bizilagun guztiek etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea dute eta, beraz, Gobernuak mandatu hori betetzeko legeak bultzatu behar ditu. Eskaintza eta eskaeraren arteko erlazioa zaindu behar du eta horretarako etxebizitzak izateko neurriak hartu (babes ofizialeko etxebizitzak) eta, errentaren inguruko araudia egin.

- Zer dio legeak?

- Gaur egun 1964ean egin zen legea guztiz desfasatuta dago. Orduko egoera sozioekonomikoa (boom demografikoa eta etxebizitzak eskatzen zituen klase sozial erdi-baxuaren agerpena) kontutan izanik egin zen legeak badauka figura polemiko bat, nahitaezko luzapena alegia. Kontratuek etengabeko luzapena dute eta 2 ordezkatza egiteko eskubidea jasotzen dute. Era berean, 100. artikulua errenten errebalorizazioa egin ahal izateko arauak ematera behartzen zuen Gobernuak, Boyer De-

kretua salbu, ez du ezer egin.

- Zerbait argitu du?

- Dekretu honek erabateko aldaketa dakar. Nahitaezko luzapena desagertu egiten da eta errentek bi aldeek paktatzen duten luzapena izango dute hortik aurrera. Hau jabearen mesederako egin da eta Konstituzioaren izpiritua kolokan dagoela pentsa daiteke. Baina Boyer Dekretuak ez du egoera argitu,



BERNARDINO MAIZTEGI
(abokatua)

jabe eta errenteroen arteko tira birak bertan dirau.

- Eta orain "Ley de Arrendamientos Urbanos" delakoa...

- Senatuak lege proiektua onartu du baina indarrean sartu aurretik talde parlamentarien enmendakinak gaingitu

"Boyer Dekretuak ez zuen errenten egoera argitu; orain lege berri bat eztabaidatzen ari da"



Errenta zaharrak zirela eta, jabeek izan dituzte galtzekoak orain arte.

beharko ditu. Legea onartzen bada nahitaezko luzapena era guztietako errentetan desagertu egingo da eta etxebizitza errentetan gutxieneko luzapena 4-5 urtekoa izango da. Salbuespen baka-rrak ikasleen pisuak, uda parteko errentak, lan arrazoiengatik eginikoak, etab. izango dira. Lokal komertzialei dagokienez, berriz, askatasun osoa egongo da.

- Eta lehendik sinatuta dauden kontratuetarako?

- Hor dago arazoa. Orain arte jabeek jasan dute kalterik haundiena eta jabeak eta errenteroak pozik uztea zaila da. Etxebizitzetan, nahitaezko luzapena zutenek bere horretan jarraituko dute eta errenta finkatzeko berriz, errebalorizatzeko sistema progresibo bat finkatuko da, errentari eta talde familiarraren errekurto ekonomikoak alde batetik eta errentaren antzintasuna bestetik kontutan hartuz. Errenta erregulatuz joango da IPCak kontutan hartuz, gaur eguneko egokitu arte. Lokalen errentak, berriz, desagertu egingo dira epe baten barruan bi gauza kontutan izanik: pertsona fisikoa edo juridikoa den (fisikoa babestuko da) eta bere kapazitate ekonomikoa (gutxi daukana babestuz).

KONTSULTA BERRIA
Cristina Garciandia Mugica
DERMATOLOGIA, BENEREOLOGIA, MEDIKU KIRURJIKOA
SAN MARTIN OSASUNDEGIA
Ramon maria Lili, 2. Ate nagusia. ☎ 76 59 39
Lagun Aro Aseguruak Osasun Laguntza

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimera
Uriarte, 8 BERGARA
☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxa: 76 04 77

Udal Pilotalekuan laister hasiko dira birgaitze lanak egingen. Horretarako Udalak 50 miloi jarri ditu eta gauzak espero bezala badoaz, maiatzerako frontoi birgaitua izango dugu. Obraren nondik norakoak jakiteko Anselmo Iñurritegi arkitekturekin izan gara eta baita, Fernando Ugarte, Eskutaldea enpresaren arduradunetarikoa batekin ere, euren asmoak jakiteko.



Miserableak bezalako ikuskizun erraldoiak obrak egin bezain laster egin ahal izango dira.

Bergarako Udal pilotalekuak pelota partiduak eskaintzeko baldintza guztiak betetzen ditu. Baina Bergarako Udalak gure herriak beste mota batzuetako ikuskizunak (kontzertuak, antzezlanak ea..) eskeintzeko duen leku falta dela-eta frontoia egokitzea erabaki du.

Ekintza berri horiek hartu ahal izateko frontoiak Eusko Jaurlaritzaren Ikuskizun sailaren hainbat baldintza bete beharko ditu. Horiez gain, suteen aurkako beste baldintza batzuk, elektrizitate mailan eta azkenik berogailu eta ur kontuetan ere egokitu behar izango dute fronto-

50 milioi, maiatzerako Frontoia berrizteko

Jaurlaritzak agindutako arauak betetzeko beharrezko lanak

ia. Halere, Anselmo Iñurritegi pilotalekuaren birgaitze lanen proiektua egin duen arkitekturek adierazi digunez, Ikuskizun eta Joku sailak jarritako neurriak izan dira zailenak eta ugarienak betetzeko. Izan ere Ikuskizun eta Joku sailak bi emergentzia irteera izatera behartzen du. Horrez gain ate horiek 1,80 metroko zabalera izan beharko dute eta ateen

zerrailak "antipaniko" direlakoak izan beharko dira eta goikaldea transparentea.

Beste egokitzapen garrantzitsu bat eskaileretan egingo dena izango da. Lehengoek 1,60 metroko zabalera dute bakarrik eta berriek 1,80 metroko zabalera izango dute. Bestalde, 1994an irteerako dekretu bati esker ezindu fisikoek erai-kuntzetara sartzeko au-

kerak izan behar dute. Hori gaur egun frontoiak ez du betetzen eta ondorioz ezindu fisikoentzat ere eskilerak egokitu behar izango dira. Komunei dagokienez frontoiak ez ditu gutxieneko baldintzak betetzen eta ez hori bakarrik, kalderak eta aldagelak ere eraberritu beharko dira.

Goiko solairuari dagokionez eskailerek ez dituzte baldintzak betetzen

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apaintetarako eta industriadako pinturak •
- Paper margotutak •
- Mokatetarako eta tapizatuak •

A mets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI



Pelotarientzako aldagelak berrituko dira. Lau dutxa eta bi komun izango dituzte.

estuegiak direlako eta komunak ere berritzu behar dira.

Markagailu elektronikoa, errebotea...

Inurritegik esan digunez, "Lehenengo ideia gauzak seguritate eta akzesibilitate mailan konpontzea izan da. Baina legea bete ondoren ikusi dugu, gauza batzuk egin gabe geratuko direla. Halere enpresa berriak eta Udalak lortutako akordioari esker, jarlekuak margotuko ditugu, bormak agian berdez pintatuko ditugu telebistan hobeto ikusi ahal izateko, markadore elektronikoa jarriko ditugu eta errebotea ere egingo dugu".

Errebotearena da, agian, pelotazaleentzat berrikuntzarik nagusia eta Inurritegik zergatik egingo duten errebotea azaldu digu. "Frontoi

guztiak dute errebotea eta orain frontoia 7 bilabetez itxita izango da. Eskailerak, komunak ea.. aldatu egingo dira, baina borrenbeste denbora pasa ondoren pelotazaleek ez duten euren zatitza aldaketak somatuko. Orain errebotean

dauden jarlekuak igo egingo ditugu eta altura gutxi izango duen arren, errebotea izango da".

Birgaitutakoan frontoiak jarleku aldetik kapazitate gutxiago izango du, gaur egun beheko solairuan 819 jarleku baldin badaude, gero 731 izango dira. Goiko solairuan, aldiz, frontoia berriz zabaltzen denean

421 jarleku izango dira, guztira frontoian 1.156 jarleku izango direlarik. Denera 1.500 pertsonentzat izango du kapazitatea frontoia, 1.000 beheko solairuan eta 500 goikoan. Jarleku aldetik kopurua murriztuko den arren, komunei dagokie-

"Errebotean dauden jarlekuak igo eta altura gutxi izango duen arren, errebotea egingo dugu". ANSELMO IÑURRITEGI.

nez alderantziz gertatuko da. Beheko solairuan emakumezkoek bi komun bakarrik baldin badute, frontoia berriz zabaltzen denean 12 izango dituzte.

Gizonezkoentzat berdin jarraituko du. Goiko solairuan, aldiz, emakumezkoek 6 komun izango dituzten bitartean, gizonezkoentzat 3 izango dira.

Taberna kalera begira izango da

Tabernak ere aldaketak izango ditu, alde batetik orain pilotalekuaren erdi erdian badago, gero alde batean izango da. Gaur egun tabernara joateko frontoiraino sartu behar da, baina birgaitze lanei esker, taberna egun osoan zehar izango da zabalik.

Halere ez da frontoiraino sartu beharrik izango tabernara joateko kalera begira izango baita zabalik. Pelota partiduak jokatzen direnean pertsiara bati esker taberna frontoi barruan daudentzat zabalduko da eta kalekoentzat, aldiz, itxita izango da. Aldagelak ere berriak izango dira eta Inurritegik adierazi digunez, alde gela ondoan prentsarentzako gelaxka bat izango da. "Telebistak aldageletaraino sartzen dira eta askotan pelotariak erdi narrutsik harapatzen dituzte kamarrek. Orduan gelaxka horretan kazetariak elkarriketak egiteko aukera

izango dute". Aldagela berrietan lau dutxa izango dira eta horrez gain bi komun.

Kalderen gela, bestalde, guztiz eraberrituko da eta elektrizitatea ere bai. Azken egokitzapen hau oso garrantzitsua izango da kontzertuak edo telebistako kamarrek elektrizitatea modu egoki batean hartu ahal izateko. ■

Fernando Ugarte

Udal Pelotalekuko errentari berria

Bergarako Udalak, Iñigo Idarretak eta Eskutaldea enpresak sinatutako akordioari esker datorren maiatzetik aurrera Eskutaldea izango da Udal pilotalekuaren arduraduna. BERRIGARA, Eskutaldeako sozio batekin, Fernando Ugarte bergarrarekin, izan da.

- Zer da Eskutaldea?

- Fernando Dublang Anoeta Frontoiko gerenteak, beste bi pertsonak eta nik osatzen dugu enpresa.

- Nola funtzionatu-ko du frontoi berriak?

- Frontoia berriztu arte gauzak antolatze-ko denbora izango dugu. Gure asmorik nagusi-entari-ko oinarri-ko pelota bultzatzea izango da. Gaur egun Agustin Iñarra eskoletako umee-kin dabil eta Reyes Azkoitia BKEko pelotariekin. Hauen lana ordainezina. Gure helburua hori guztia pelotari eskola batean batzea izango da. Horrez gain, Euskadi mailan pelotari eskola bat egiteko asmoa dugu, monito-reak, prestatzaile fisiko-ak etab. ak jarri-ko genituzke. Azken eskola honetan profesio-ale- tarrak sartzeko- tan daudenak izango lirake.

- Ze pelotari ekarri-ko dituzue?

- Gu Empresas Unidas barruan gaude eta pelotari gutxi baina kalitate-koak ditugu. Bergaran inoiz ez dira izan orain

bezala dauden 3 profesio-ale. Zezeagak izugarri-ko maila du, Etxaniz-ek arazoak izan ditu ezker eskuan eta errekupe- ratzen bada maila ona emango du. Aitor Oregi bere kategorian lana be- tetzen ari da.

- Frontoia sei hila- betez itxita izango da. Ez al duzu ikusleak galtzeko beldurrik?

- Ez, alderantziz, uste dut erakargarri- goa izango dela. Jendeak ohitu- rak ditu, baina obrak egi- tea ezinbestekoa denez, egin behar dira. Horrekin ikusle-arentzat gauzak hobetu egingo dira. Baina gu oso ilusio- natuta gaude proiektu- arekin. Esan dute pelota, telebis- tarekin etb.ekin gorantz doala, baina ikusle- go aldetik jeitsi egin da. Guk asistentzia igotze- ko ser- riotasuna eskeini nahi dugu eta uste dut otar on bat egiteko minbreak di- tugula.

- Udalarekin eta Idarretarekin sinatze-ko duzuen akordioan ze zailtasun izan dira, zailtasunik izan bada?


- Egia esateko Udala- rekin harreman onak izan ditugu eta pozik gaude lortu- tako akordio- arekin.

"Bergaran pelotari gazteekin lanean ari direnak pelota eskola batean biltzea da gure asmoa. Otar on bat egiteko minbreak ditugula uste dut"

- Azkenaldian Ber- garako frontoia, badi- rudi bigarren maila batera pasatu dela...

- Ez bakarrik frontoia, herri guztia dago horrela.

regokitzea. Pelota parti- duak antolatzeaz gain, frontoia beste ekintza bat- zuz (kontzertuak, an- tzezlanak etab) antolatze- ko zabalik izango da.



"Jendea frontoira erakarri nahi dugu, bestela jai daukagu".

Gaur egun dagoen egoerak egiten du hori horrela izatea. Baina Bergarari bizitasun pixka bat emateko, ez bakarrik pelotari dagokionean, ondo etorri-ko da frontoia be-

Hori bai, ondo funtzio- n- tze-ko jendea frontoira etorri behar da, bestela jai daukagu, eta horre- tarrako partidu onak ema- ten saiatu-ko gara. Hori da gure erro- nka.

Intsumiso gaztea

Hamazazpi urte ditut oraindik naiz gaztia atzo iritsi zitzaidan soldaduzkako kartia nik ez dut nahi joaterik hori bai komeria intsumisioa bultzatuko dut izateko libria.

- Ama ni ez noa!
- Joan ta ez izan leloa!
- Espainiar ejerzitua hori bai azpijokoa; ezkutatuta nabil ta pertsegitua bakarrik naizelako Euskal Intsumisioa

Urte bete ta pikuz kartzela barruan librea izatea nik daukat buruan Gobernu alu honek sartu nau barruan ta ez dut bazkalduko bizitza osuan.

Euskal Intsumisoak Askatu!!

Osel Erostarbe

Ikasleen eguna

Azaroaren 18an Ipintza Institutuan antolatzen den Ikasleen Eguna laster dugu hemen eta dirudienez hainbat ikasleek egun hau antolatzeko ez dute euren aldetik ezer jarri nahi. Adibidez, institutuko ikasle guztiak saldu behar izango dituzte boletoak baina beste zentru batzuetako ikasleek batere lanik egin gabe berdin ospatuko dute egun zoragarri eta gazte-saltsako hau.

Momentu honetan hau idazten ari garen partaideok, nahi duguna zera da, gero eta diru gehiago bildu egun hau gero eta alaiagoa izan dadin. Jai eguna ona izatea nahi badugu diru beharra daukagu zeren ikasleok egindako zerrendan agertzen diren musika taldeak ez baitira diru apur bategatik etorriko.

Egun honetan bazkaria ere egongo da, honetaz gain ikasleen arteko jokuak ere goizaldean egongo direlarik. Hauen artean: futbola, eskubaloia, sokatira, saskibaloia, e.a. Eta batez ere, JAI GIRO EDERRA

Zer da Bergarako Gazteriaz?

Berriro kontu berdinarekin gatozen Bergarako gazte batzuk gara. Betiko kontua da baina gogo haundiz nahi dugun gauza bat da:

Zuek, alkate eta zinegotziek, gazteak kalean utzi gaituzue, gutaz batere pentsatu gabe.

Astebukaeretan Bergarako gazteria beste herri batzuetara joaten da Bergaran dagoen giroa ikusiaz; ez entrenimendurik, ez kontzertutik, ez nora joanik, ezta gazteak ekartzeko lekurik ere.

Gure gustoko ekintzak (bertso afariak, bideo emanaldiak, kontzertu onak...), jokuak (futbolina, bilarra, mahai jokuak...) barra bat, e.a. edukitzea gustatuko litzaiguke. Udaletxeak edukiko du lokal edo lekurik guk eskatzen duguna jartzeko.

Gainera hau dena eskatzea ez dugu uste gehiegi denik.

IA GUTAZ GEHIAGO PENTSATZEN DUZUEN!!

Euskara

Zortzi urteko ume txiki bat ikusi dut gaur kalean euskera mintzatuz zihoan bere amaren ondoan.

14 urteko mutil txiki bat ikusi dut gaur kalean euskera mintzatuz zihoan bere anaien ondoan.

20 urteko gizon haundi bat ikusi dut gaur kalean erdera mintzatuz zihoan bere lagunaren ondoan.

Berrogei urteko gizontxo bat ikusi dut gaur kalean erdera mintzatuz zihoan bere andrearen ondoan.

Gazte ta zahar zahar ta gazte euskaraz mintza zaitezte gure hizkuntzak herritar den dei bat luzatzen dizue "Gaixorik nago baina oraindik askatu nazakezue hiltzen nago ta arintasunez bizkor lagun nazazue" lan pixkat eginda ausartasun euskeraz egin ezazue.

Egoitz Unamuno

SUTAGIA

Asma ezazu hutsuneetako hitz egokia

Musika gogorki (a) astinduz

argia distira (b)

bapatean diote kaixo eta agur.

(d) bat zitzu bizian gauean.

Une hauek ditut horrenbeste maite

(f) geldirik balego bezala

izarrak ditudala nere kide

motorra (g) noa zuregana

begi irrifartsu bi dakuzat nere (h)

mundua da urrun

eta ez nuke (i) iratzarri nahi

erabat galdurik kalean (j)

hobe sentitzen naiz

gaua irensten nagoen honetan

Azkar!!

Azkar!!

Aitor Oregi, Ion Agirrebeña, Iker Bolibar

a.

Azkar
Zuregana
Urrunduz

b.

Pareta
Gitarra
Burua

d.

Iluntasunean
Gauean
Kalean

e.

Kotxe
Motor
Auto

f.

Bizitza
Kotxea
Denbora

g.

Lehortuz
Lehertuz
Bizkor

h.

Zain
Hurbil
Urrun

i.

Behin ere ez
Inoiz
Laster

j.

Kalean
Klasean
Parkean

Frontoian futbola zergatik ez?

Egun hauetan Bergarako hainbat frontoitan ondorengo mezu hau ipini dute:

- Pelotaleku publikoa hartu bezala utzi behar da, hau da, garbi.
- Eskuz edota palaz (gomazko edo tenisko pelotak) bakarrik jolastu daiteke.
- Jendea zain dagoenean ordu bat bakarrik hartu daiteke.
- Eskubide berdina dute:
 - Atzerritarrek.
 - Sexu ezberdinetakoek.
 - Adin ezberdinetakoek.
- Bergarako Udalak iharduerak antolatzeke eskubidea gordetzen du, lehenetasun osoa izango duelarik.
- Istripuak badaude Udaletxeak ez du kargurik hartzen.

Ez daukagu beste tokirik baloiarekin jolasteko eta hauek ere kendu behar dizkigute?

Denok ezin dugu Seminarioan jolastu.

Osintxuar bati elkarrizketa

OSINTXUKO 700

jaiak?

BIZTANLEETAKO BAT:

Kontziertuak,

• Osintxu independente

Osintxukoak hobeak,

bai ala ez?

baina Bergaran

Bai noski.

askatasun haundiagoa

• Osintxuko biztanleak

daukat.

ados al daude zurekin?

• Osintxun zer egin

Gazteak denak eta

astebukaeretan?

edadetuak baietz uste

Eta Bergaran?

dut.

• Zergatik horrenbeste

• Hori lortzeko proiekturik

gogo Osintxu

egin al duzue?

independiente bihurtzeko?

Bai, pegatina batzuk

Osintxukoa sentitzen

atera ditugu.

naizelako eta ez

• Bergarako ala Osintxuko

Bergarakoa ezta mokoloa

ere.

aldizkari honetan lekutxo

• Mekolalde non sartuko

bat egiteagatik

zenuke, Osintxun ala

OSINTXUREN

Bergaran?

INDEPENDENTZIA

Osintxun, noski.

aldarrikatzeko.

Eskerrik asko zuen

Agur.



Drogak legeztatzearen aldekoa ala kontrakoa zara?



Begoña Payas
30 urte, langilea

Droga bigunak bai, minik egiten ez dutela uste dudalako, baina gogorrek ez, horiek kaltegarriak baitira.




Baldomero Fdez. de Retana
69 urte, jubilatua

Agian droga bigunak legeztatuko balira, droga gogorren kontsumoak behera egingo luke.



Maite Sánchez
24 urte, ikaslea

Droga gogorrek ez lituzkete legalizatu behar. Gero eta gehiago daude eta kaltegarriak dira. Baina, noizean behin porro bat erretzea ez dut uste txarra denik.




Geronimo Casquero
30 urte, langilea

Mafiak eta merkatu beltza ekiditeko, drogak legeztatzea irtenbidea izan daiteke, baina gaia konplikatu da, agian kontsumoak gora egingo luke alkohola bezala.



Garbiñe Lazkano
43 urte, etxekoandrea

Uste dut legeztatuko balira, are gehiago kontsumituko lirатеkeela, beraz, legeztatzearen kontra nago.



Abraham Osa
17 urte, ikaslea

Droga bigunak legeztatu beharko lirатеke eta, beharbada, baita gogorrek ere. Arazo gutxiago egingo lirатеke.

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

TXUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA



Zorionak Athletic!!

AEK-ko barnetegian egon zen "El Pais"-eko kazetari/espioia Domu Santu egunez Antzuolako Surpe tabernara agertu izan balitz, izango luke zer idatzirik. Ez genuen bada, han ginenok Madrileko Erreal partidua galtzen ikusi nahi! Zoritxarrez irabazi egin zuen.

Baina ze arraio, desberdinak gaituk!! hauteskundeetako emaitzek espainolizatzen ari garela dioten arren. Madriletik datorkigun inperialismo zuriari amorrua diogu gehienok, eta hori nonahi eta noiz-nahi ikusten da. Tele-pantailan beste talderen bat balego, diruz euskal talde erdiak erosi izan dituenartzelona esaterako, ziur naiz jaramonik ez edo bere alde ongongo ginatkeela gehienok.

Amorrua ez da zorionez, desberdintasun bakarra. Gehiago desberdintzen gaitu gure arteko elkartasunak. Txuriurdirin zalea izanik, Athletic animatuz aritu nintzen pasa den asteartean, eta berdin jokatu nukeen telebistan Osasuna edo Alavés baleude ere. Toki guztietan gertatzen dela hori? Sevilla taldeko zenbat zaletu poztu ote ziren Betis-ek igoera lortu zuean? Culéen artean, nor penatzen da Espāñolek galtzen duen bakoitzean? Madrileko zurien zaletuak ez al dira pozez orgasmoraino iritsi Gil y Gil-en ez dakit zenbatgarren proiektua pikutara joan denean?...

Eta desberdintasun gehiago ere baditu euskal-zalegoak: derbira elkarren ondoan saltoka joateko adorea, San Mamesen egin zen legez, kiroltasunez jokatu duen aurkako taldea eta zalegoa txaloz omentzeko duintasuna. Futbola, futbolaz gain gehiago ere badela erakusteko aukera, "Freedom for the Basque Country" k zioen bezala... Espainolizatzen ari garela? Gertatzen dena, kirola eta kirolariek badutela botua ematen ez duen %40 horien arteko asko eta asko mugiarazteko gaitasuna; politikak eta politikariek, aldiz, aspertaraztekoa.

Beñardo KORTABARRIA



Ondo pentsa dezatela

Orain dela aste pare bat izan ziren hauteskunde autonomikoei buruz hitzegitea gustatuko litzaidake, gaia oso orijinala ez bada ere.

Lortutako emaitzak kezkarriak dira nire ustez. Baita kanpainan zehar politiko gehientsuenek izan duten jarrera ere. Ez da nahikoa, ezta zuzena ere urtean behin edo birritan Euskal Herriaren izena ahotan hartzea, norberaren interesak defendatu ahal izateko. Ez da nahikoa behin eta berriz Euskal Herria izan denaz eta izan dituen eskubideez hitzegitea. Iragana hor dago, aldaezina da. Etorkizuna da ostera aldatu beharrekoa.

Eta badirudi hauxe dela Arzallus jaunari (beste politiko batzuen artean) ahazten zaiona. Urteroko Alderdi Egunean egundoko mitinak egiten ditu. Badirudi bera dela euskaldunetan euskaldunena ("Jaungoikoa eta lege zaharra") gure eskubideen defendatzaile sutsuena. Eta zer esanik ez! Euskarakiko duen jarrera ere, ezin hobea! Nahiago omen du euskaraz dakien beltza, euskaraz hitzegiten ez duen euskalduna baino.

Baina badirudi ahaztu egin zaiola nork jarri zuen Buesa hor. Bigarren honen iritziz, garrantzitsuagoa baita, hurrek ingeleza jakitea euskara ikastea baino.

Oraingo honetan ere zai gelditu beharko dugu. Zein kide berri aukeratuko dute oraingoan EAJkoek? Ongi pentsa dezatela, lau urtean egin daitekeen kaltea itzuliezina izan baitaiteke.

Josune IÑARRA



**DEBA
GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65

ederTu
ALTZARIAK

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A




Argazkian ikus ditzakezue JARDUNek antolatu duen kitarra ikastaroan ari diren ikasle batzuk.

Eric Clapton berriak

44 lagun ari dira JARDUNeko Gazte Taldeak antolatutako kitarra ikastaroan parte hartzen, larunbatero Kartzela Zaharrean. **Mikel Berasategi** eta **Enmanuel Igartua** irakasleen eskutik, ikasleek, interes handiz, kitarrarekin lehen urratsak emateari ekin diote astean lau orduz. Ikasleen adinaren batuz bestekoa 18 urtekoa bada ere, gazteenak 11 urte eta beterranoenak 57 dauzka. Ez dakigu guztiak ados jarriko diren musika estilo ezberdinak lantzeko orduan...

Telebistako figura


Iñaki Rubio Antena 3eko "*Genio y figura*" saioan irtengo da datorren azaroaren 14an. Iñakik urriaren 20an grabatu zuen Madrilko "*El Alamo*" estudioetan umorezko saio hori eta berarekin batera Donostian bizi den Miguel bere anaia bikia eta Guillermo izeneko eibartar bat aritu ziren lehian. Lehen aldia zen euskaldunen batek parte hartzen zuela eta hirurek, Iñakiren hitzetan, "kategoriako umorea" eskeini zuten. Epaimahaiak oso erabaki zaila izan zuen sariak banatzeko orduan eta, azkenik, hirurei berrehuna mila pezeta ematea erabaki zuen. Iñaki oso gustora azaldu da programan jasotako tratuekin; ez zuen inolako nerbiorik pasa, umorista danak oso jatorrak direla aipatu digu eta, horrez gain, berriz joateko deituko diotela agindu diote. Bergaran badugu umorearen jenio bat!! Argazkian ikus dezakezue Iñaki Rubio azken 24 urteotan gure artean bizi den donostiarra telebistako izar bihurtu berri den **Chiquito de la Calzadarekin**.



LAKET
gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA


ARTISAUTZAKO IZOKIA
GOXO-TOKI
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Matxialegi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA



Aristokraten laguna

Oscar Igartua bergarar gaztea prentsa larroseko orrialdeetan ikusi ahal izan genuen aurreko astean. Oscar Enpresaritza ikasketak burutzen ari da Madrilén eta berarekin batera, besteak beste, **Tatiana de Liechtenstein printzesa** ikasten



ari omen da. *Paparazzi-ek* azken honi egiten dio-

ten jarraipena dela medio (Felipe printzearen andre-gaia izateko aukera asko

LECTURAS aldizkariaren 2.221. alean argitaratutako argazkietan Oscar Igartua bergararra Tatiana de Liechtenstein printzesarekin solasean ikus daiteke.

omen ditu) Lecturaseko 2.221. zenbakian biak elkarrekin agertzen ziren orrialde oso bateko erreportaiari.

Bertan hiru argazki agertzen ziren eta bitan Oscar agertzen zen; batean txantxetan Tatianarekin eta bestean Tatiana bera eta beste lagun batekin berbetan. Argazkian antzematen denez behintzat, lagun minak dira Tatiana eta Oscar.

Espero dezagun Felipe printzea jeloskorra ez izatea...

Zertan dihardute ba?



Manu Muniategi 28 urteko margolari bergararrak bere hainbat lan erakusgai ditu egunotan Madrilén, Bartzelonan eta Almerian. Muniategik 2 urte daramatza Artelekun eta bertako beste 11 artistekin batera Bartzelonako *La Capela* erakusaretoan eta Almeriako Bienalean beren lana ezagutzera ematen ari dira. Era berean, aukeratu egin zuten Estatuko beste 14 artistekin batera Madrileko Antropolojia Museoa egiten ari den "Arte Joven"eko erakusketan parte hartzeko. Bere hitzetan, "*orainarte abstraktoa landu dut nagusiki eta orain berriz abstraktoa eta figuratiboa tartekatzen ditut nere lanetan*".



ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
 Matxiategi ☎ 76 15 09


MAKAILO ETXEA
Makailau kazuelak gertatzen ditugu
 Ibargarai, 15

Pepelu
Olepaindegia
 Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

Usue Lazkano

UBIko ikaslea, Usue Lazkano (17 urte) nesken futbol taldeko kapitaina dugu. Erdikaldean jokatzeko du eta ez dago dudarik azkarra dela; atletismoan 7 urte daramatza eta 60 eta 200 m.ko probak korritzen ditu Arrasateko taldearekin.

- Ze asmo aurtengo denboraldian?
- Lehen seiren artean geratzea.
- Lagunekin futbolaz berba egiten duzu?
- Beti.
- Bergarako futbolari onena?
- Agus. Bergarako taldean Maki.
- Norekin osatuko zenuke erdikaldea?
- Carlos Xavier, Goikoetxea eta Laudrupekin.
- Bronkarik botatzen diezu jokalariei?
- Batzutan bai. 8 eta 1 galdu genuenean batez ere.
- Arbitro bati esandako gauzarik gogorrena?
- Orain arte ezer ere ez.
- Txartelik erakutsi dizute?
- Ez.



"Lagunekin futbolaz berba egiten dut eta erdikalde bat osatzeko Laudrup, Carlos Xavier eta Goikoetxea aukeratuko nituzke. Emakumea diskriminatuta dago bai bizitzan eta bai kirolean"

- Joku zikinik egin duzue inoiz?
- Bai.
- Zein taldearekin ribalidaderik haundiena?
- Dunboarekin (Irun).
- Zein taktika erabiltzen duzue?
- 4-4-2koa.
- Entrenadoreek, zenbaterainoko garrantzia?
- % 85a.
- Mutilen kontra jokatzeko prest?
- Zergatik ez.
- Non jokatzearekin amets?
- Añorga taldean eta Anoetako futbol zelaian.
- Emakumeak diskriminatuta al daude?
- Bai. Eguneroko bizitzan eta kirolean ere bai.
- Futbola gogorra al da?
- Ez zait oso gogorra egiten.
- Indarra ala teknika?
- Biak.
- Toshack ala Irureta?
- Toshack.
- Alkiza ala Guerrero?
- Bat ere ez.
- Luis Garcia ala Kodro?
- Kodro.
- Aktore bat?
- Kevin Costner.
- Hobby bat.
- Atletismoa.
- Zure atleta favorittoa?
- Carl Lewis.

TXISTU MOTOR

KOTXE BERRIZKETAK

SKODA ZERBITZU BERRIA



Volkswagen taldea

Aribar Poligonoa. San Juan auzoa.
☎ 76 09 31 BERGARA

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOJTOAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Telefono. 761051

R. S. I. 209374 - 55

BERGARA

BONOFOTOA



M. A. ELKOROBREZIBAR



Edurne Aldana

Edurne Aldanak jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, orain dela bi aste egindako galdera berak asmatu du eta. Argazkian agertzen zen Bergarako kanposantuaren sarreran irakur daitekeen esaldia galdetzen genizuen era erantzuna: **Veni et Vide (ezkerraldean) Memento Mori (eskumaldean)**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Edurne Aldanari** eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein da baserri honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa.: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

ETXEBIZITZA

Amueblatu gabeko **pisua** alokatuko nuke.
☎ 76 34 48 (Yolanda).

Pisua salgai Artekalen.
☎ 76 12 81.

Pisua salgai Osintxun.
☎ 76 50 05 (Josune).

Etxea alokatzen da Marto-
kuan. ☎ 76 14 60.

Pisua alokatzen da Matxia-
tegin. ☎ 76 46 15.

Pisua salgai Koldo Elei-
zalden. ☎ 76 56 90.

Garajea salgai Ibargarai
kalean. ☎ 76 00 93.

Pisua alokatzen Zubiau-
rren. ☎ 76 13 85.

Pisua salgai Martokua
18an. ☎ 76 00 51.

Pisua salgai Artzamendin.
☎ 76 10 55.

Garajea salgai Zurradero
8an. ☎ 76 13 93.

Pisua salgai Zabalotegi-
ko Torrean. ☎ 76 33 19.

Pisua salgai San Migel ka-
lean. ☎ 76 02 13 (goizez).

Pisua alokatzen da Irizar
ibilbidean. ☎ 76 21 28.

Garajea saltzen da Ibar-
garai kalean. ☎ 76 44 25.

DENETARIK

Ford Fiesta Ghia SS-T
salgai. ☎ 76 15 40/16 18.

Bainerarako hidromasaje
aparailu, lehorgailu eta
beste osagaiak. 90.000
pezeta. ☎ 76 53 90.

Karro-denda ia berria
salgai. Prezio onean.
☎ 76 41 21.

Ski pare bat salgai (9-12
urtekoentzako).
☎ 76 16 92.

ESP Horizon baxoa eta
Marshall JCM 800 anplia
salgai. ☎ 76 56 61 (Ibon).

Volkswagen Corrado
kotxea salgai (SS-AG).
☎ 76 38 16 (gauez).

Renault Express diesel
kotxea salgai (berri-be-
rria). ☎ 76 50 70.

Zibro estufa salgai (egoera
onean). ☎ 76 12 86.

Opel Corsa 1200 kotxea
salgai. ☎ 76 29 91.

Estufa japoniarra salgai.
☎ 76 45 18.

Ordenadore merke bat
erosiko nuke. ☎ 76 08 19.

Armairu bat (1.80 m.koa
gehenez) erosiko nuke.
☎ 76 59 15 (Jose Luis).

LANA

Ingeles klaseak.
☎ 76 22 90 (Ainhoa).

BBB 3.eko matematikako
klaseak hartuko nituzke
etxean.
☎ 76 38 71 (Larraitz).

OHO eta ingeles klaseak.
☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxebizitzak garbitzen di-
tut. ☎ 76 59 47 (Loli).

Ingeles Filolojian lizen-
tziatua, ingeles klaseak.
☎ 76 26 63.

BBB eta LH klaseak.
☎ 76 24 31 (Eneko).

Neska batek etxeko lanak
egingo lituzke.
☎ 76 53 21.

Matematika eta Zientzie-
tako klaseak ematen dira.
☎ 76 06 50.

Fisika eta matematika
klaseak. ☎ 76 24 57.

Lokalak garbituko nituzke.
☎ 76 51 76 (Leire).

Matematika klase partiku-
larrak ematen dira. Zubietan
2, 1.goa eskuma (Jesus).

Erizain laguntzaileak za-
harrak zainduko lituzke (ga-
uez ere bai). ☎ 76 47 71.

Aleman klaseak. Titulodu-
na. ☎ 76 12 77 (Maite).

Matematika finantziario
klaseak. ☎ 76 05 43.

Zaharrak zaindu, etxeko
garbitu, dendaren batean
lagundu edo jostunen ba-
tekin lan egingo nuke.
☎ 75 24 47.

Haurrak zainduko nituzke.
☎ 76 45 93.

Ingeles klaseak ematen
ditut. ☎ 76 26 63.

AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai, 2 behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

ZURICH



UNIBER

HISPANIA

GALLASTEGI

Jostundegia

mahoizko lanerako
jantziak

San Pedro, 17 ☎ 76 10 85

HARATEGIA- URDAITEGIA

Sebastian Imaz

Bildotsa, txahala eta
oilazkoak

Harane Erreka, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Amillaga, 1 (B Pabiloia) ☎ 76 28 04 BERGARA

Ariznoa Gimnasia Erritmiko taldea, Euskadiko Txapelketetara

KIROL KARTELDEGIA

► Futbola

Bergara-Oiartzun
Prefente maila.
Igandea, 15.45. Agorrosin.
Bergara-Donibane
Lehen mailako jubenilak.
Larunbata, 17.15. Ipintza.
Bergara-UDA
2. mailako jubenilak.
Larunbata, 15.30. Ipintza.
Bergara-Arantz. Ama
Lehen mailako infantilak.
Igandea, 10.15. Ipintza.
Bergara-UDA
Emakumezkoak.
Igandea, 11.45. Ipintza.

► Eskubaloia

Bergara-Mundaiz
Kadete mutilak.
Larunbata, 16.15.
Bergara-Urdaneta
Senior mutilak.
Larunbata, 17.30.
Biak Kiroldegian.

► Saskibaloia

Ibili Bergara-Legazpia
Senior mutilak.
Larunbata, 19.00.
Bergara-Eskoriatza
Jubenil neskak.
Larunbata, 12.15.
Biak Kiroldegian.

V. BINAKAKO PALA TXAPELKETA

Udal Kirol Zerbitzuak V. Binakako Pala Txapelketa antolatuta du. Partiduak azaroaren 27tik aurrera jokatu dira igande goizetan Osintxon (gomazko pelotarekin). Bazkideek 1.500 pzta. eta gainontzekoek 3.000 pzta. ordaindu beharko dituzte. Izen-ematea azaroaren 22an itxiko da eguerdiko ordubietan. Egun horretan, 7etan, Kultur Etxean bilera izango da.

Jendetza haundia bildu zen joan zen larunbatean Labegaraieta kiroldegian jokatu-tako Taldekako Gimnasia Erritmikoko Gipuzkoako txapelketa ikustera.

Bergarako Ariznoa taldeko neskatilek Euskadiko Txapelketarako sailkapena lortu zuten, alebin eta junior mailetan. Juniorrek bereziki lan bikaina egin zuten eta epai-mahaiak goripatu egin zuten erakutsitako maila. Eva Arevalillo eta Alicia de César prestatzaileak, bestalde, erabat pozik agertu ziren egindako lanagatik.

Alebin eta junior mailetan bergararrak nagusi-



Hil honen 26an Gasteizen jokatu den Euskadiko Txapelketarako prest?

tu baziren, Infantiletan Ipurua A izan zen onena eta jubeniletan, berriz, Donosti. Ariznoa, Ipurua, Donosti eta Hernani taldeetako 65 bat gimnasta aritu ziren lehian.

Amaieran, Amaia Uriondo gimnasta donostiarrari omenaldia egin zitzaion Parisen jokatu-tako Munduko Txapelketetan Espainiako selekzioarekin egindako lanagatik.



Txapelketa guztian zehar bikain aritu arren Etxenagusia taldekoek ezin izan zuten finala irabazi.

Arrakastatsua gertatu zen joan zen larunbatean jokatu-tako V. Fontsi Memoriala. Eguraldia ere lagun izan genuen eta antolatu ziren ekitaldi guztietan jende ugari hartu zuen parte. 12 orduko futbito txapelketa Oñatiko **Garratzenak** taldeak eraman zuen finalean **Etxenagusia** taldeari (argazkian) nagusitu ondoren. Guztira 20 taldek hartu zuten parte. Hiruko saskiratze lehiaketan, bestalde, **Jabier Barrionuevo** izan zen onena, 18 lehiakideren artean. Mendiko Bizikleta ibilaldian, azkenik, 140 bat lagun bildu ziren, gehienak kanpotik etorritakoak (Elorriotik, esate baterako, 30 bat etorri ziren).

Iñigo Igartua

Ziklo-krossean areriorik gabe

Iñigo Igartua txirridulariak aurtengo ziklo-kross denboraldiko bere lehen garaipena lortu zuen asteartean Leioan. Belgikan egin duen prestakuntza ondo baino hobeto etorri zaio bergararrari.

- Belgikako prestakuntza ohizkoa bihurtzen ari da...

- Bai, hau laugarren urtea da Belgikan izan naizela denboraldia prestatzen. Lehen urtea ondo joan zitzaidan eta ordutik errepikatu nahi izan dut. Aurten Oudenaarden izan naiz 3 astez, Flanders-eko etxean. Betidanik, ziklo-kross mailan mailarik altuena Belgikan izan da eta lasterketa gehienak ere bertan izaten dira.

- Zelako entrenamenduak egiten zenuen?

- Normalean prestaketa indibiduala, pulstometroa erabiliz. Esfortzuko proba egin eta bihotza pultsasio batzuren tartean mantendu. Goizetan, 8.30ak aldera jeiki ta gosaldu aurretik parkean ariketa fisiko batzuk egin, gero, eguerdian, bazkaldu eta arratsaldetan errepideko entrenamendua. Ostiraletan, berriaz, zirkuitotan entrenatzen nuen beste ziklista batzurekin batera, De Brawer, Verbecken (Munduko Txapelketan 3. izan zena) eta Ronnie Assez tartean.



Iñigok gogor ekin dio denboraldiari.

- Lasterketak, zer moduz?

- 3 korritu ditut, 2., 4. eta 7. postuak lortuz. Oso pozik nago eginda-

denboraldia erregularra go prestatu nahi dugu. Esperientzia haundikoa da (Cabestany eta Eizagirrekin ibilitakoa), oso

Mediku berri batekin lanean ari naiz denboraldiko azken karreratan ere sasoitsu egoteko

ko prestaketarekin. Leioan ere, nahiz eta iaz ere irabazi, indar aldetik hobeto ibili nintzen. Orain arte nerekin ibilitako Iñaki Arratibel medikuaren ordeaz, Jose Angel Larrañagarekin ari naiz eta

zaletaua da eta oso pozik nago berarekin.

- Oraindik hala ere patrozinadorearen bila...

- Bai. Momentuz Flanderseko kamisetarekin korritzen nabil eta bi

multinazional eta banketxe baten erantzunaren zain nago. TVEk "TVE Challenge"ko bi proba zuzenean eta besteen laburpenak eskeiniko dituela esan du eta pentsatzen dut azaroaren 20an Duranan korrituko den probarako patrozinadore berri bat izango dudala.

- Oraindik zaila da ziklo-krossean korritzea.

- Bertakoa eta espezialide ikusgarria izan arren, ziklo-krossak zailtasunak izan ditu beti, baina gauzak hobera aldatzen ari direla esango nuke. Asteartean ere, Leioan, kadeteetan 70ek eta jubeniletan 60 gaztetxok korritu zuten. Kantitate-tik kalidadea etorriko da. Karguei dagokienez ere ziklo-krossa maite eta ezagutzen duen jendeadator, Iñaki Mayora selekzionatzailea esate baterako.

- Munduko Txapelketarako ze asmo?

- Maila oso altua izaten da eta hor dago Munduko txapeldunaren kasua: lehendabiziko proban, Suitzan, 35.a izan zen. Faktore asko dira eta zirkuituek ere zeresan haundia izaten dute. Dena den, ahal dudana

egiten saiatuko naiz eta ea probaren batean lehen hamarren artean sartzerik daukaten.

Azaroaren 13an Corvan (Italian) korrituko dut eta Igorrekkoa abenduan izango da.



Lehen maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurr.	A m u l t z o a
1. Madura	10	6	4	2	0	27	14	
2. Mongatxurra	9	5	4	1	0	30	8	
3. Errotagain	9	5	4	1	0	37	20	
4. Angiozar	9	6	4	1	1	22	17	
5. Bar Canalejas	7	5	3	1	1	20	13	
6. Etxagi	4	6	2	0	4	32	29	
7. OH Zerezos	4	6	2	0	4	21	31	
8. Ogizun	3	5	1	1	3	16	23	
9. Uve Bikoitza	1	6	0	1	5	15	28	
10. Guadalest	0	6	0	0	6	8	45	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurr.	B m u l t z o a
1. Kabia	9	6	4	1	1	38	10	
2. Ozaeta	7	6	3	1	2	18	11	
3. Arloteak	6	5	3	0	2	14	10	
4. Bildurbarek	6	5	3	0	2	15	13	
5. Usoa	6	6	2	2	2	15	14	
6. Pagomendi	6	5	3	0	2	17	16	
7. Arkupe	6	6	3	0	3	18	36	
8. Ufala	4	6	1	2	3	14	19	
9. Kayak	4	5	1	2	2	13	28	
10. Revienta	2	5	1	0	4	7	12	

Bigarren maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurr.	C m u l t z o a
1. Kriterium	9	5	4	1	0	14	7	
2. Krai	8	6	3	2	1	15	7	
3. Nahikari Hool.	8	6	4	0	2	12	9	
4. A Ze Flaxa	6	5	3	1	1	15	8	
5. C. Bergara	4	5	2	0	3	14	18	
6. Nekrofilikos	4	5	1	2	2	12	17	
7. Txipiron	2	4	0	2	2	6	8	
8. Paok San Juan	1	4	0	1	3	8	18	
9. Kriston Potruak	0	4	0	0	4	0	4	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurr.	D m u l t z o a
1. Etxenagusia	10	5	5	0	0	44	8	
2. Amozkibar	8	6	4	0	2	19	16	
3. La Juve	7	5	3	1	1	22	14	
4. Shaktale	5	6	2	1	3	23	20	
5. EH Biterrak	5	5	2	1	2	10	19	
6. Labegaraieta	5	6	2	1	3	19	29	
7. Aldoka Maldoka	4	5	2	0	3	12	12	
8. Igandekoak	4	5	2	0	3	15	16	
9. Los Txupeta	0	5	0	0	5	11	41	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurr.	E m u l t z o a
1. Soropetroak	11	6	5	1	0	32	10	
2. Hartu Zamak	8	5	4	0	1	25	9	
3. Pikapiedras	6	5	2	2	1	13	7	
4. Eri	6	5	3	0	2	19	16	
5. Ezinleike	6	6	3	0	3	24	23	
6. Kirolzaleak	4	4	2	0	2	9	14	
7. Ari Ari	2	4	1	0	3	16	19	
8. Pata Negra	1	3	0	1	2	2	15	
9. Patxaran Team	0	5	0	0	5	9	29	

emaitzak

Guadal-OH Zerezos **0-6**
 Etxagi-OH Zerezos **15-3**
 Guadalest-Angiozar **1-6**
 Madura-Uve Bikoitza ... **3-1**

Arkupe-Usoa **4-1**
 Kabia-Kayak **9-1**
 Ufala-Ozaeta **2-1**

A Ze Flaxa-Txipiron **3-2**
 Nahikari-Krai **3-1**
 Txipiron-Krai **2-2**
 A Ze Flaxa-C. Bergara . **8-2**

Aldoka-EH Biterrak **2-4**
 Amozkibar-Igandek. **3-1**
 Shaktale-Igandekoak ... **3-4**
 Los Txupeta-Labega. ... **2-9**
 La Juve-Amozkibar **4-7**

Soropetroak-Eri **5-3**
 Ari Ari-Pikapiedras **11-4**
 Hartu Zamak-Ezinl. **4-2**

partiduak

LARUNBATA Barruan

9.00: Eri-Pata Negra
 (Pikapiedras)
 10.00: Pikapiedras-Hartu Zam.
 (Los Txupeta)
 11.00: Amozkibar-Los Txupeta
 (Hartu Zamak)

Kanpoan

10.00: Kriterium-Nahik. Hool.
 (Eri)

IGANDEA Barruan

9.00: Kayak-Revienta
 (Ogizun)
 10.00: Ogizun-Madura
 (Mongatxurra)
 11.00: Errotagain-Mongatxurra
 (Guadalest)
 12.00: Uve Bikoitza-Guadalest
 (Usoa)
 13.00: Usoa-Bildur. OPEL/LAM
 (Uve Bikoitza)
 16.00: Arloteak-Arkupe
 (Angiozar)
 17.00: Angiozar-Etxagi
 (OH Zerezos)
 18.00: OH Zerezos-Canalejas
 (Ozaeta)
 19.00: Ozaeta-Pagomendi
 (Ufala)
 20.00: Ufala-Kabia
 (Pagomendi)

Kanpoan

9.00: C. Bergara-Txipiron
 (Igandekoak)
 10.00: Igandekoak-Aldoka
 (EH Biterrak)
 11.00: EH Biterrak-La Juve
 (Kirolzaleak)
 12.00: Kirolzaleak-Ari Ari
 (A Ze Flaxa)
 13.00: Paok-A Ze Flaxa
 (Ari Ari)
 16.00: Etxenagusia-Shaktale
 (Soropetroak)
 17.00: Patxaran Team-Soropot.
 (Shaktale)

OHARRA: Parentesi artean
 partiduak arbitratu behar
 dituzten taldeen izenak.



Pikupe elkartearen sortzaileak

Goiko horietxek izan omen ziren Bergarako elkarerik zaharrenaren sortzaileak. Pikupe elkarte 1942an sortu zen eta garai hartan elkarte gastronomikoak sortzea debekatua zegoelako zezenzaleen elkarte bezala sortu zen, "Peña Cañitas" izenarekin. Gaur egun Artekalea 7an duten lokala izan aurretik San Antonioko Askasibar tabernan izan zuen bere lehenengo egoitza. Bestalde, 20 bat urte pasatxorarte ez zuten sukalderik.

Gaur egun ere zezenzale elkarte modura jarraitzen du baina denetarik dago bazkideen artean, bai zezenzale amorratuak eta baita zezenak batere interesatzen ez zaizkion jendea ere.


Honako hauek dira argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara: Inazio Maria Galarraga, Bixente Astiazaran "Txaketua", Jose Larrañaga "Alaia", Mariano Macho, Roman Sañudo, Laureano Askargorta eta Paco Movilla.

*Estepan Plazaola
Argazkia: Karmen Jauregi*

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-denda
Orain SORALUZEN

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



BERGARAKO OSASUN Gida

ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak). ☎ 76 43 29
- ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala). Telefono mobila. ☎ 908 77 17 32
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 90 81 09 30 - Koldo Eleizalde, 28. ☎ 76 27 97

ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behea. ☎ 76 27 95
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behea. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. ☎ 76 07 66
- GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E.M. - S. Arrieta 3, 2.B. . ☎ 76 38 54

HAGIN KLINIKA:

- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta 6, 2. (Lehen Notaria zegoen tokian). ☎ 76 05 77

MASAILARIAK:

- AZPEITIA Irune - Telesforo Aranzadi 1, 2. ☎ 76 14 08
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5, 2.E. ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain, 3 behea. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3.A. ☎ 76 51 18

MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. ☎ 76 37 50

LARRUAZALAREN GAIXOTASUNAK:

- ARISTONDO F.J. (Gaitz benereokak) - Barrenkale, 16 1 ☎ 76 18 81

PEDAGOGOAK:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea) - S. Arrieta 3, 2.E. ☎ 76 26 42

PODOLOGOAK:

- ALTUBE Eburne - Simon Arrieta, 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. ☎ 76 41 32

PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin Plaza 2, 1.ezk. ☎ 76 26 64

PSIKOLOGOAK:

- FERNANDEZ Jose Ramon (Psikologo klinikoa) - Ramon María Lili, 2. ☎ 76 59 72
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA Marisa (Psikologo klinikoa). ☎ 76 30 76

ETXE


MOBEL



LTZARRIAK

LOGELETAN

espezializatutako merkatal zentrua



Larunbat arratsaldetan
ZABALIK!!

40 urteko esperientzia
duten profesionalak
sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen

Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak, garantia osoarekin.
Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!

Araba Etorbidea, 5 (ESCATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tfnoa: 79 41 82 ARRASATE